

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Amorebieta-Etxanoko Udala****Amorebieta-Etxanoko Udalean, karrerako funtzionario moduan sartzeko hautaprobetarako (lehiaketa-oposizioa) deialdiaren oinarri orokorrak.**

Amorebieta-Etxanoko Udalean, karrerako funtzionario moduan sartzeko hautaprobetarako (lehiaketa-oposizioa) deialdiaren oinarri orokorrak

**Lehenengoa. — Xedea**

Oinarri hauen xedea da Amorebieta-Etxanoko Udaleko plantillako plazak karrerako funtzionarioekin betetzeko hautaprobetarako deialdia arautzea. Deialdi bakoitzaren berriazko oinarrietan zehaztuko da plaza zein den.

Epaimahaiak ezin izango ditu hautatu deitutako plaza kopurua baino hautagai gehiago, deialdiaren berriazko oinarrietan horrela jasutzen denean izan ezik.

Barne-sustapen arrunteko txandarako gordetako lanpostuak hutsik geratuko balira lehiarik ezagatik, probak gainditzeko eskatutako gutxieneko puntuazioa inork ez lortzeagatik edo laugarren oinarriko baldintzak ez betetzeagatik, txanda irekirako deitutakoei gehituko zaizkie, baldin eta deitutako plazei dagokien LEP onartu zen urterako ezarritako birjartze-tasa betetzen bada.

Era berean, deialdiko plaza kopurua handitu daiteke hautaketa prozesua amaitu baino lehen hutsik gelditzen diren lanpostuekin.

Barne-sustapeneko txandaren erreserbatik datozen izangaiek lehentasuna izango dute txanda irekikoan aldean, hutsik dauden lanpostuak betetzeko.

Amorebieta-Etxanoko Udaleko karrerako funtzionario gisa sartzeko prozeduran, emakume eta gizonen arteko berdintasun printzipioa aitortzen da.

**Bigarrena. — Arau aplikagarriak**

Udaleko lanpostuak hornitzeko hautaketa-prozesuen deialdietan honako legeria aplikatuko da:

- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duen 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa.
- Abuztuaren 2ko 30/1984 Legea, Funtzio Publikoa Eraberritzeko Neurriei buruzkoa.
- Uztailaren 6ko 6/1989 Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea.
- 896/1991 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, toki-administraziooko funtzionarioak hautatzeko prozedurak bete behar dituen oinarrizko arauak eta gutxieneko programak ezartzeari buruzkoa.
- Ordezko gisa, Estatuko Administrazio Orokorrean sartzeko eta Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionario zibilen lanpostuak bete eta lanbide sustapenerako Erregelamendu Orokorra, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuak onartua.
- Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko 10/1982 Legea, azaroaren 24koa.
- 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.
- 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa.



- Emakume eta gizonen berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa.
  - Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea.
  - Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestu eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.
  - Eusko Legebiltzarraren 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa.
  - Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
  - Toki araubidearen arloan indarrean dauden lege xedapenen testu bategina, apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileak onartua.
  - Euskadiko Toki Entitateen apirilaren 7ko 2/2016 Legea.
  - Oinarri orokor hauek
  - Deialdi bakoitzerako onartzen diren oinarri espezifikoak.
- Indarrean den arloko araudia, orokorrean, hornitu beharreko lanpostuaren Gorputz eta Eskala edozein dela.

**Hirugarrena. – Plazen deskribapena**

Plazen deskribapena prozesu bakoitzaren oinarri espezifikoetan egingo da Enpleguaren Eskaintza Publikoa onesten duen ebazpenak edo plangintzarako antzeko tresnaren batek ezartzen duen moduan.

**Laugarrena. – Hautagaiak bete beharreko baldintzak****1. Baldintza orokorrak**

1.1. Deialdietako kidego eta eskalarako hautaketa-prozesuetan parte hartu ahal izateko, ondoko baldintza orokorrak eta oinarri espezifikoetako baldintzak ere bete behar dituzte:

- a) Espainiar nazionalitatea izatea.  
Funtzionario sartzeko prozesuetan, espainiarrekin bezalaxe eta baldintza berdinetan honako hauek ere hartu ahal dute parte, botere publikoa baliatzen edo estatu edo herri administrazioetako interes orokorren zaintzan zuzenean edo zeharka parte hartzen dutenek izan ezik.
  - a.a.) Europar Batasuneko kide den estatueta baten nazionalitatea dutenak.
  - a.b) Espainiarren ezkontideak eta Europar Batasuneko kide den estatueta baten ezkontideak, ezkontidearen nazionalitatea edozein izanik ere, baldin eta zuzenbidez bananduta ez badaude. Era berean, ezkontide bien ondorengoek hartu ahal dute parte baldintza berdinetan, hogeita bat urte-tik beherakoak badira edo bestela, adin horretatik gorakoak izanda eguneroko bizimoduan besteren laguntza behar badute.
  - a.c) Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko itunei jarraiki, a.a) idatz-zatian zehaztutakoaren arabera langilean joan-etorri askea aplikatzekoa zaion estaturen bateko herritartasuna izatea.
- b) Zereginak betetzeko behar besteko gaitasun funtzionala izatea.
- c) Hamasei urteak beteta izatea eta derrigorrezko erretiro-adinetik gorakoa ez izatea.
- d) Herri administrazioen edo Autonomia Erkidegoetako organo konstituzioan edo estatutarioen zerbitzuetatik diziplina-espeditarean bitartez baztertua ez izatea eta, epailearen erabakiz kargu edo enplegu publikoak burutzeko, ezta funtzionarioa izateko ere, gaitasunik gabe utzia ez izatea.



Beste Estatu bateko herritarra izanez gero, antzeko egoera baten ezgaitua ez izatea edota diziiplina zigorrik edo antzekorik ez izatea bere Estatuan enplegu publikoan aritzeari dagokionez.

- e) Deialdiaren lanpostu horretan sartzeko oinarri espezifikoetan eskatutako titulazio akademikoa edukitzea.

Atzerrian eskuratutako titulazio akademikoak direnean, euren homologazioa edo baliokidetzat egiaztatzen duen ziurtagiria erantsiko da.

- f) Ezgaitasun edo bateraezintasuneko lege-kausaren batean sarturik ez izatea, herri-administrazioen zerbitzura dauden langileentzat bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araubidearen arabera; hala ere, kargu publikoan jardun edo jarduera pribatu bateraezina egiten dutenek ez dute aukera egiteko eragozpenik izango, aipatutako legezko arauetan adierazita dagoen bezala.

- g) Zerbitzuak eman edo administrazio jarduerak burutzeagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen eta indarrean dagoen Amorebieta-Etxanoko Udaleko ordenantza fiskalak ezarritako azterketa-eskubideen tasa ordaindu izana, eskabideak aurkezteko epearen barruan. Langabezian daudenek (lan bizitzaren agiria erakutsi beharko dute) edota barne promozio bidez lanpostua eskuratu nahi dutenek, ez dute tasa ordaindu beharrik izango.

Hautagai bakoitzak berari dagokion tasa ordaindu beharko du, aurkeztu nahi den plaza bakoitzeko.

1.2. Aipatu betekizunak eskariak aurkezteko epea amaitzen denean izan beharko dira eta betekizun horiek bete beharko dira hautaketa prozedura osoan, izendapenera arte.

## 2. Barne promozio txanda

Barne-promozio txandarako gorde diren plazetara aurkeztu ahal izateko, hautagaiak jardunean edo zerbitzu berezietan egon behar dute eta baldintza hauek bete behar dituzte:

- a) Amorebieta-Etxanoko Udaleko aurrekontu plantillan egotea funtzionario edo lan kontratupeko langile finko moduan, lortu nahi den plazaren beheko sailkapen taldeko edo azpitaldeko, edota talde edo azpitalde bereko plazan, oinarri berezietan ezarritakoaren arabera.
- b) Amorebieta-Etxanoko Udaleko karrerako funtzionario edo lan kontratupeko langile finko moduan urte bi jardun izana lortu nahi den plazarekin zerikusia duen lanpostua betetzen.
- c) Lortu nahi den plazarako eskatzen diren titulazioa eta antzintasuna edukitzea, eta eskatzen diren gainerako baldintzak ere betetzea.

C taldeko Gorputz edo Eskaletara igarotzeko, D taldeko dagokion jarduera edo funtzio arloko Gorputz edo Eskaletatik barne promozio bidez egin ahal izango da, horrelakorik dagoenean, eta horretarako lehiaketa-oposizio sistema jarraituko da eta merezimen- du lehiaketan karrera eta egindako lanei lotutakoak baloratuko dira, prestakuntza maila eta antzintasuna.

Honetarako, eskatutako titulazioa D taldeko Gorputz edo Eskalan hamar urteko antzintasunarengatik ordezkatu ahal izango da, edo bost urte eta berariazko prestakuntza ikastaro bat gainditu. Prestakuntza ikastaroa egiteko irizpide objektiboak ezarriko dira.

## 3. Parte hartzeko baldintzak

Hautaketa-prozesuan parte hartzea norberak erabakitzen du eta horrek esan nahi du onartu egiten dela proba psikoteknikoak eta nortasunari buruzkoak egitea, proba horiek beharrezkoak badira, bai eta proba horietako emaitzak balorazioan eragina izateko erabilitea ere, deialdi bakoitzaren berariazko oinarrietan ezarritakoarekin bat etorrira.

Izangaiek deialdi honetako berariazko oinarrietan jasotako proba fisikoak egitera aurkezten badira, euren gain hartuko dute euren osotasun fisikoaren gaineko ardura guztia, eta proba horietan norbaitek lesiorik izanez gero, Amorebieta-Etxanoko Udalak



eta epaimahaiak ez dute inolako erantzukizunik izango, baldin eta interesdunak kontuan hartzeko moduko zerbait (gaixotasunak, alergiak, haurdunaldia...) jakinarazi ez badu, horrelakoetan Prebentzio Zerbitzuak neurri egokiak hartzen baititu.

#### 4. *Datuen babesa*

Izangaiek oinarri hauetan jasotako hautaketa-prozesuetara aurkezteak esan nahi du baimena ematen dutela eskabidean ageri diren datu pertsonalak erabiltzeko (izen-abizenak, NAN eta ikasketak), aldizkari ofizialetan, iragarki tauletan, web gunean eta, oro har, hautaketa-prozesuaren emaitza partzialak edo behin betikoak jakinarazteko erabiltzen den edozein bideren bitartez argitaratzeko. Halaber, hautagaiek datuak erabiltzeko baimena ematen dute, HAEEK edo erakunde eskudunak euskararen hizkuntza-eskakizuna edo beste hizkuntzaren baten ezagutza maila egiaztatu dezan, eta, oro har, hautaketa-prozesuari dagozkion ariketak epaimahaiak, erakundeak, enpresak edo epaimahaiak agintzen dionak modu egokian prestatu eta burutzeko direla baieztatuz.

Hautaketa-prozesuak publizitate printzipioak araututa daude. Ondorioz, izangaiaren eskabiderik ez da onartuko baldin eta ez badu bere datuak lagatzea onesten aurreko paragrafoan adierazitako edukiaz eta helburuetarako.

Honako deialdiaren hautaketa-prozesuen ondorioz lan-poltsak eratzeari buruzko ha- maikagarren oinarriaren ondorioetarako, eskabidean hautagaiek adierazi behar dute euren datuak (izen-abizenak, NAN, helbidea, telefonoa eta ikasketak) herri administrazioko beste erakunde batzuei lagatzeko eragozpenen bat duten. Lagapen horren helburu bakarra da erakunde horiek lan eskaintzak legez ezarritako moduan egitea. Datuak lagatzea ez dutela nahi berariaz adierazi ezean, hautagaiek horretarako baimena ematen dutela ulertuko da.

Izangaiek emandako datu guztiak fitxategi batean sartuko dira, eta haren arduraduna Amorebieta-Etxanoko Udala izango da.

Interesa duten pertsonak datuak kontsultatu, zuzendu, ezeztatu eta haien tratamenduaren aurka egiteko eskubidea izango dute, idazki bat bidaliz helbide honetara: Amorebieta-Etxanoko Udaleko Giza Baliabideen Saila, Herriko plaza z.g., 48340 Amorebieta-Etxano.

### **Bosgarrena. — Eskabideak**

#### 1. *Forma*

Eskaera-orriak eredu ofizial eta normalizatuetan egingo dira. Ereduok Amorebieta-Etxanoko Udaleko Herritarren Arreta Zerbitzuan doan eskuratu ahal izango dira (Herriko Plaza, z.g.). Web orri honetan ere eskuragarri egongo dira: [www.amorebieta.eus](http://www.amorebieta.eus).

Eskabideak onartzeko, eta hala denean, kasuan kasuko hautespen-probetan esku hartzeko, hautagaiek eskabidean eskatutako baldintza guztiak bildu eta betetzen dituztela adieraziko dute, betiere eskabideak aurkezteko aipatutako epearen amaiera-data aintzat hartuta.

Merituak jasotzen dituen inprimaki eredu ofiziala bakarrik aurkeztu beharko da. Azal dutako merituek egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko dituzte deialdiaren berariazko oinarrietan ezartzen den epean eta forman.

Eskabidean, dagokion laukian, zer txandatan parte hartu nahi den adierazi beharko da: txanda irekian, barne-sustapenean, desgaitasuna duten pertsonen txandan. Hiru txandetariko batean bakarrik parte hartu ahal izango da.

#### 2. *Eskabideak aurkezteko tokia*

Amorebieta-Etxanoko Udaleko Erregistroan aurkeztuko dira (HAZ) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 art.ak adierazitako lekuetan.

#### 3. *Eskabideak aurkezteko epea*

Deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko egunetik hasita, hogeita egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira.



#### 4. *Tasak ordaintzea*

Hautaketa-prozesuan parte hartu nahi duen pertsona bakoitzak eskabidea aurkezteko epearen barruan ordainduko du azterketa-eskubideei dagokien tasa, eta, Tasei eta Prezio Publikoei buruzko 8/1989 Legeko 12. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, ez da bidezkoa izango hura itzultzea interesdunari egoztekoak diren arrazoiengatik. Horrenbestez, baldintzak ez betetzeagatik, prozesua ez gainditzeagatik, edo deialdian eskaturiko dokumentazioa ez aurkezteagatik hautaketa-prozesutik baztertuta geratzeak ez du berekin ekarriko azterketa-eskubideak itzultzea.

Azterketa-eskubideei dagokien diru-sarrera Amorebieta-Etxanoko Udalaren zerbitzuak eman edo administrazio jarduerak burutzeagatik sortzen diren tasak arautzen dituen indarreko ordenantza fiskalak ezarritako moduan egingo da. Langabezian daudenean (lan bizitzaren agiria erakutsi beharko dute) edota barne promozio bidez lanpostua eskuratu nahi dutenek, ez dute tasa ordaindu beharrik izango.

Hautagai bakoitzak berari dagokion tasa ordaindu beharko du, aurkeztu nahi den plaza bakoitzeko. Diru-sarrera honela egin daiteke:

- Banku transferentzia bidez, deialdiko plaza eta hautagaiaren izen-abizenak adieraziz, ondoko kontu zenbakian: ES50 2095 0023 5091 0394 4288.
- Zuzenean Amorebieta-Etxanoko HAZn.
- On line.

Deialdi bakoitzean adieraziko da azterketa-eskubideen zenbatekoa eta tasaren ordainketa.

#### 5. *Eskarietan izan daitezkeen akatsak zuzentzea*

Eskabidea behar den denboran (eskariak aurkezteko epea) eta moduan (eskari eredu ofiziala) aurkezten ez bada, edo ezarritako tasa ordaintzen ez bada eskariak aurkezteko epean, dena delako izangaia hautaketa-prozesutik baztertuko da. Alderdi horiek ezingo dira zuzendu eskabideak aurkezteko epetik kanpo.

Hala ere, 39/2015 Legearen 68. artikulua arabera, eskaera-orriren batek akatsik izanez gero, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesatuari akats hori zuzentzeko, eta zuzentzen ez badu, bere eskarian atzera egin duela ulertzen da.

Probak egiteko hizkuntza.-Eskabidean adierazi beharko da zein hizkuntzatan egin nahi diren hautaketa-probak (euskaraz edo gaztelaniaz).

#### **Seigarrena. — Hautagaien onarpena**

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, Alkate-Udalburuak onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda onartu eta ondokoetan argitaratzeko aginduko du: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Udaleko iragarki-taulan eta "<http://www.amorebieta-etxano.eus>" web orrian. Era berean, ebazpen horretan adieraziko dira lehene-nengo ariketaren lekua, eguna eta ordua. Horrez gain, epaimahai kalifikatzailea nork osatuko duen (titularrak eta ordezkariak) ere agertuko da. Zerrenda horietan izangaien izena eta bi deitura agertuko dira, bai eta Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia eta, hala badagokio, ez onartzeko arrazoia ere.

Baztertuen zerrendan agertzen diren hautagaiak hamar egun balioduneko epea izango dute iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita, baztertzea eragin duen akats edo hutsunea zuzentzeko.

Behin-behineko zerrenda behin betikotzat joko da erreklamaziorik aurkeztuko ez baltz. Egongo balira, onartu edo gaitzetsi egingo lirateke eta dagokionean, erabaki berri bat hartuko litzateke behin betiko zerrenda onartzeko. Jendaurrean ikusgai jarriko da hau ere aurrekoarekin egindako modu berean. Erabaki honen aurka zerrendak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita, Alkate-Udalburuari zuzendutako berraztertze errekurtsoa jar daiteke.

Behin-behineko zerrendetatik kanpo utzi dituzten hautagaiak, zerrenda horren aurkako erreklamazioa epearen barruan aurkeztu badute, badaezpada probetara aurkeztu ahal izango dira, ordurako erreklamazioa ebatzi ez baldin bada. Halaber, behin betiko



zerrendetatik kanpo geratu diren hautagaiak badaezpada probetara aurkeztu ahal izango dira, zerrendetatik kanpo uztearen aurkako errekurtoa aurkeztu dutela egiaztatzen baldin badute eta ordurako oraindik ebatzi ez baldin bada.

### **Zazpigarrena. — Epaimahai Kalifikatzailea**

#### **1. Osaketa**

Epaimahaian epaimahaiburu bat, idazkari bat, eta deialdian ezarritako epaimahaikideak egongo dira, eta epaimahaikide-kopurua ezingo da izan inola ere bost baino gutxiago. Epaimahaia osatzen dutenak nagusiki teknikariak izango dira, eta espezialitatearen printzipioa izango da nagusi. Beraz, kide guztiek deialdiko lanpostuetan eskatzen den titulazio berdina edo maila handiagoko titulazioa izango dute, eta, gutxienez, kideen erdiek hornituko den lanpostuari dagokion ezagutza-arlo bereko titulazioa izan beharko dute, eta, hala ez izatea justifikaturik egon ezean, gizonen zein emakumeen ordezkari-tza, orekatua bermatu beharko da.

Batzordeko kideak, titularrak eta ordezkoak Alkateak izendatuko ditu. Izendapen horiek udaletxeko iragarki-oholean eta web orrian argitaratuko dira.

Bokalen artean, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAEE) kide bat proposatuko du eta sindikatuko ordezkariak beste kide bat proposatuko dute, beti ere hurrengo hau kontuan izanik: batetik, hautespen langileek ezin izango dute parte hartu hautaketa-organoetan eta bestetik, hautaketa-organoetako kide izatea norberaren izenean izango da beti, eta ezin izango da inoren izenean edo inoren ordezkari modura jardun.

Dena dela, Epaimahaiak, egoki iritziz gero, arlo jakinen bateko aholkulari adituen laguntza jaso ahal izango du.

Euskararen ezagutza baloratzeko, HAEEko beste ordezkari bat egongo da Epaimahai Kalifikatzailean, halaxe izan behar dela baitago xedatuta Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 99.2. artikuluan.

#### **2. Abstentzia eta ezespena**

Epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin diezaiokete Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. art.an ezarritako baldintzaren bat ematen bada, Udalburuari jakinarazi beharko zaiolarik. Hautagaiak ezetsi egin ahal izango dituzte aipatu Legearen 24. art.an ezarritakoaren arabera, aurreko artikuluan adierazitako baldintzaren bat ematen denean.

#### **3. Eraketa**

Epaimahaia ezingo da eratu eta ezingo du jardun gutxienez epaimahaiburua eta idazkaria (titularrak edo ordezkoak) eta Epaimahaiko gainerako kideetatik erdiak agertu ez badira. Kopuru horretan ez da sartzen idazkari lana egiten duena.

Epaimahaiak, egoki baderitzo, aholkulari espezialistak eduki ahal izango ditu bere kideei laguntza emateko. Aholkulariok beren espezialitate teknikoetara mugatuko dute jarduna, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 31.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira; aholkuak eta laguntza teknikoa eskainiko dute beren espezialitate teknikoetan eta hitzarekin baino botorik gabe jardungo dute.

Gaixotasun bat edo hutsegiteren bat egonez gero, eta orokorrean, pisuzko arrazoiren bat dagoenean, organo kolegiatuko kide titularren lekuan ordezkoak arituko dira. Hutsegite, gaixotasun edo bestelako arrazoi legalen bat gertatzen bada, presidentearen ordezkariak ordezkariak jardungo du eta, ordezkariak ezingo balu, hierarkia, antzinatea eta adin handieneko epaimahaikidea arituko da, hurrenkera hau jarraituz. Idazkariaren aldi baterako ordezkariak, etorri ezin delako edo gaixorik delako, bere ordezkariak beteko du edo, hala ez balitz, idazkariaren beraren akordio bidez egingo da.

#### **4. Jarduna**

Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 10eko 40/2015 Legearen 15-18 artikuluetan zehaztutako arauen arabera jokatu dute epaimahaiak. Lehendakariak koordinatuko du hautaketa prozesua, eta bere kalitate botoarekin ebatziko ditu bozketetan



gerta daitezkeen berdinketak. Epaimahaiko kide guztiek hitza eta botoa izango dituzte, idazkariak izan ezik; azken horrek hitza izango du, baina botorik ez.

Izangai-kopurua dela-eta komenigarria denean, Kalifikazio Epaimahaiak administrazioko eta zerbitzuetako laguntzaileak izendatu ahalko ditu, Idazkaritzak gainbegiraturik, hautaketa-prozesua behar bezala garatzea bermatzeko adinako kopuruan. Zerbitzuagatiko kalte-ordainei buruzko arauetan aurreikusitako legezko kalte-ordainak jasoko dituzte.

Epaimahaia osatzen duten kide guztiek, bai eta hautaketa-prozesuan parte hartzen duten aholkulari eta adituek ere, izangaiei zor zaien intimitate-eskubidea eta errespetua bermatuko dute egikaritzen dituzten funtzio guztietan; horrez gain, izangaiei buruzko informazioa modu egokian tratatzeaz arduratuko dira.

Hautaketa-prozesua behar bezala garatze aldera, Epaimahaiak oinarri hauetan edo oinarri espezifikoean aurreikusten ez diren gaien inguruan erabakiak hartzeko ahalmena izango du, bai interpretazioari eta aplikazioari dagokienez, bai Epaimahaiaren beraren funtzioak egikaritzeari dagokionez. Epaimahaiaren ebazpenen aurka gora jotzeko errekurtsua jarri ahalko da Alkatetza-Presidentetzaren aurrean, ebazpenean bertan adierazten den epean, iragarki-oholean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Epaimahaiak, hautaketa prozesuaren edozein unetan, hautagaien identitatea egiaztatzea eska dezake.

Epaimahaiak bermatu egingo du hautagaiak hautaketa prozesuaren barruan beraien espedienteak ikusteko duten eskubidea.

Epaimahaiak konfidentzialtasuna bermatzeko beharrezko neurriak hartuko ditu. Zuzenketa, ahozko probetan, irakurketa publikoa duten idatzizko probetan edo gauzatze praktikan izan ezik, hautagaien anonimatoa gordetzen saiatuz egingo da.

Epaimahaiaren ebazpenen aurka, gora jotzeko errekurtsua zuzendu ahal izango zaio Alkateari hilabeteko epean, iragarkien taulan argitaratzen denetik hilabeteko epean.

*Jakinarazpen eta gainerako kontuetarako, epaimahaiaren egoitza Amorebieta-Etxanoko Udaletxeko Erregistro Nagusia izango da. Helbidea: Herriko plaza, z.g., Amorebieta-Etxano 48340.*

## 5. Kalte-ordainak

Epaimahaietan parte hartzeagatiko laguntzek eskubidea emango dute zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko Eusko Jaurilaritzaren otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan aurreikusitako kalte-ordainak jasotzeko.

### **Zortzigarrena. — Hautaketa-prozedura**

#### 1. Hautagaiak aukeratzeko prozedura

Hautagaiak aukeratzeko prozedura oposizioa edo lehiaketa-oposizioa izango da eta txanda hauek egongo dira: librea, barne sustapena, desgaitasuna dutenen txanda, deialdiaren oinarri espezifikoean ezarritakoaren arabera. Hautaketa prozesuetan praktikaldia eta prestakuntza-ikastaroa gainditu beharra egon daiteke, betiere oinarri espezifikoean ezarritakoaren arabera eta indarrean dagoen araudiak ezarritako iraupenarekin.

#### 2. Oposizioko fasea

Oposizio aldia deialdiaren oinarri espezifikoean adierazten diren ariketek osatuko dute. Bertan adierazitako izaera eta balorazioa izango dute. Deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean indarrean dagoen araudia da jakin beharrekoa.

#### 3. Lehiaketa fasea

Lehiaketaren fasean, hautagaiak ziurtatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira, betiere oposizioaren fasea gainditu badute eta ez da baztertzaila izango. Balorazioa, deialdiaren baremo zehatzetan ezarritako puntuak batuz egingo da.

Ez dira baloratuko eskabidean jaso ez diren merituak, ezta horretarako emandako epean behar bezala egiaztatu ez direnak.



Nolanahi ere, alegatzen diren merezimenduak zenbatzeko erreferentziako azken eguna deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den eguna izango da.

**Bederatzigarrena. — Hautaketa prozesuaren garapena****1. Hasiera**

Deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hilabete igaro behar da, gutxienez, oposizio-aldiko ariketak egiten hasteko. Hala ere, euskarako hizkuntza-eskakizuna ziurtatzeko edota beste hizkuntza batzuetako ezaguerak neurtzeko probak epe hori igaro aurretik egin ahal izango dira, hala jasota badago oinarri espezifikotetan.

**2. Iragartzea**

Oposizio-faseko lehen ariketaren tokia, eguna eta ordua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Udalaren iragarki-oholean, eta Udalaren web orrian argitaratuko dira, hautaketa-prozesuan onartutakoen eta prozesutik baztertutakoen zerrenda onartzen duen ebazpenarekin batera.

Oposizioko gainerako ariketei buruzko hurrengo iragarkiak Udalaren iragarki-oholean eta web orrian argitaratuko dira, bai eta, hala dagokionean, probak egin diren lokaletan ere, izangaiak horretaz ohartarazita. Iragarki horiek, gutxienez, hurrengo ariketa egin baino 48 ordu lehenago jarri beharko dira jendaurrean.

**3. Deialdia**

Oposizio-aldiko ariketa bakoitzean, deialdi bakarra egingo zaie hautagaiei. Azterketa egitera azaltzen ez direnak hautaprobetatik baztertuta geratuko dira eta ezingo dute ez ariketa hori ez hurrengoak egin, behar bezala egiaztatutako kasuetan eta epaimahaiak halakotzat jotzen dituenetan izan ezik. Arau bera aplikatuko da nahitaezko ariketak egiten hasiak direnean. Borondatezko probak egitera aurkeztu ezean edo berandu azalduz gero, proba horiek egiteari uko egin zaiola ulertuko da.

**4. Jarduteko hurrenkera**

Hautagaiek Administrazio Publikorako Estatuko Idazkaritzak egingo duen zozketan zehaztutako hurrenkera jardungo dute, 364/95 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoarekin bat. Zozketan ateratako hizkiaz hasten den abizenik ez badago hautagaien artean, hurrengo hizkia hartuko da kontuan.

**5. Identifikazioa**

Epaimahaiak edozein unetan eskatu ahal die hautagaiei identifikatzeko; hori dela-eta, ariketa guztietara eraman behar da nortasun-agiria edo epaimahaiak identifikatzeko egokitzat jotzen duen edozein agiri (pasaporte, gidabaimena, Atzerriarraren Nortasun Zenbakia...).

**6. Ariketen arteko tartea**

Oposizioko ariketa bat amaitu eta hurrengoa hasteko gutxienezko epea 72 ordukoa izango da eta gehienezkoa 60 egunekoa. Hala ere, epaimahaiak saio bakarrean ariketa bat baino gehiago batera egitea erabaki dezake, egoki irizten badio. Era berean, hautagaiei ariketak irakurtzeko eska diezaieke; hala bada, irakurraldia jendaurrean egingo da, epaimahaiak adierazitako egunean eta orduan, beti ere, 48 ordu lehenago jakinarazita.

**Hamargarrena. — Hautaprobeen kalifikazioa****1. Emaitzak argitaratzea**

Ariketa bakoitzaren puntuazioak Udalaren iragarki-oholean eta Udalaren web orrian argitaratuko dira.

Deialdiko oinarri espezifikotetan adierazitako txanda bakoitzeko zerrenda bereziak egingo dira.

**2. Oposizio-faseko ariketen kalifikazioa**

Oposizioko ariketak, deialdi bakoitzaren oinarrietan ezarritakoaren arabera kalifikatuko dira.

**3. Merezimenduak balioestea lehiaketa-aldian**

Oposizio-aldia gainditzen dutenek, epe jakin bat edukiko dute -deialdiaren oinarri espezifikoetan ezarritakoa-euren merezimenduak ziurtatzeko agiriak aurkezteko. Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabideak aurkezteko azken egunera arteko merezimenduak hartuko dira kontuan.

Lehiaketa-aldiko merezimenduak balioesteko (betiere oposizio-aldia gaindituz gero) batu egingo dira deialdiko oinarri espezifikoetako baremoen arabera esleitutako puntuak. Hala ere, zati honetako puntuazioa, gehienez ere, oposizio-aldian lor daitekeen puntuazioaren % 45 izango da.

Azken puntuazioa, lehiaketa eta oposizio aldietan lortutako puntu guztiak baturik aterako da.

**4. Azterketak berrikustea eta kalifikazioei buruzko erreklamazioak**

Oro har, gutxienez hiru egun baliodun egongo dira -epaimahaiaren erabakia argitaratzen den egunetik aurrera-azterketak berrikusteko eskatzeko edota azterketetako kalifikazioei buruzko erreklamazioak aurkezteko. Hala ere, hori ez da eragozpen izango epaimahaiaren jarduna aurkaratzeari buruz Zazpigarren Oinarrian ezarritakoa aplikatzeko.

**5. Azken kalifikazioa eta hautagaien hurrenkera**

Hautaketa-prozesuaren amaierako kalifikazioa lortzeko, batu egingo dira oposizio-aldian (ariketa guztietako puntuen batura) eta, hala bada, lehiaketa-aldian (merezimendu guztietako puntuen batura) eskuratutako puntuak. Azken kalifikazioak erabakiko du hautagaien hurrenkera.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 27.2 artikuluaekin eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4 a) artikuluaekin bat etorrita, gaitasun berdina duten kasuetan, emakumeei emango zaie lehentasuna aurkeztutako guztien % 40 baino gutxiago emakumeak direnean, eta alderantziz. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagai batzuk neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituztenean -nolanahi ere, ezaugarriok ez dute eragin behar sexuaren ziozko bereizkeriarik-; kasurako, laneratzeko eta lanbide-sustapenerako arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetakoa izatea.

Hala ere berdinketa apurtu ez bada, irizpide hauek erabiliko dira hurrenkera ezartzeko: lehenengoa, oposizio-aldian puntuaziorik handiena lortu duenaren alde; bigarrena, Amorebieta-Etxanoko Udalaren zerbitzura denbora gehien eman duenaren alde; hirugarrena, EAEko administrazio publikoen zerbitzura denbora gehien eman duenaren alde; laugarrena, beste administrazio publiko batzuen zerbitzura denbora gehien eman duenaren alde eta, azkena, adinez nagusia denaren alde.

**6. Destinoa hautatzea**

Destinoak aukeratzeko, hautaketa-prozesuko behin betiko sailkapenean hautatutako pertsonak zein hurrenkeratan dauden hartuko da kontuan. Edozelan ere, lehentasuna izango dute barne-sustapeneko txanda bidez parte hartu eta hautatuak izan direnek.

**Hamaikagarrena. – Probak gainditu dituztenen zerrenda****1. Ariketak gainditu dituzten pertsonen zerrenda argitaratzea**

Oposizioko ariketa bakoitzaren zuzenketa amaitutakoan, epaimahaiak hautagaiak lortutako emaitzak argitaratuko ditu udaleko iragarki-taulan, udal webgunean eta azterketak egin diren tokietan.

Oposizioa bukatu ondoren, epaimahaiak argitaratu egingo ditu gainditu dutenen behin betiko zerrendak, puntuazio ordenaren arabera. Zerrenda horietan oposizioko ariketa bakoitzeko puntuak, lehiaketakoak eta denak baturik ateratzen den emaitza agertu-



ko dira. Ondoren zerrendak organo eskudunari eramango zaizkio, karrerako funtzionario izendapenarekin batera.

Deialdiko oinarri espezifikoetan adierazitako txanda bakoitzeko zerrenda bereziak egingo dira.

Barne-sustapeneko txandarako erreserbatutako plazek, bete ez direnek, txanda libre handituko dute, baldin eta deitutako plazei dagokien LEP onartu zen urterako ezarritako birjartze-tasa betetzen bada.

Deitutako lanpostuen kopurua handitu ahal izango da, hautaketa-prozesuan zehar edozein arrazoirengatik hutsik geratzen diren lanpostuen arabera. Handitze hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da alkate-udalburuaren ebazpen baten bidez, eta bertan adieraziko dira plaza-kopurua, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data; nolahi ere, oinarri honetako 1. zenbakian aurreikusitako gaitutuen zerrenda argitaratzeko izapidea baino lehen egin beharko da.

## 2. *Lan-poltsak*

Hautaketa-prozesua gaitutu baina plazarik lortu ez dutenen zerrendak bitarteko funtzionarioak izendatzeko erabili ahal izango dira, indarrean dagoen araudian aurreikusten diren kasuetan, eta Udalarai aldi baterako zerbitzuak emateko erabiltzen diren lan-poltsak osatzeko. Deialdirako aukeratutako pertsonak euren lanpostuak jabetzan hartu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean zerrenda horiek.

## 3. *Epaimahaiaren erabakiak*

Epaimahaiaren erabakiak lotesleak izango dira izendapena egiteko ardura duen organoarentzat; hala ere, hori ez da eragozpen izango organo horrek kalifikazioak berrikusteko, indarrean dagoen Herri Administrazioen eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusitakoaren arabera.

### **Hamabigarrena. — Agiriak aurkeztea**

#### 1. *Agirien zerrenda*

Probak gaitutu dituzten zerrenda argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita, 20 eguneko epearen barruan, funtzionario izateko proposaturiko izangaiek hautaketa-prozesuan parte hartzeko deialdiaren oinarrietan eskatzen diren baldintzak egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztuko dituzte Udaleko Giza Baliabideen Sailean. Hauek, alegia:

1. Nortasun Agiri Nazionala edo dagokion Erregistro Zibilak emandako jaiotza-ziurtagiria.
2. Oinarri hauen eta deialdiaren oinarri espezifikoen arabera dagozkion eginkizunak normaltasunez betetzea galarazten duen gaixotasunik edo muga fisiko edo psikikorik ez duela egiaztatzen duen medikuaren ziurtagiria izatea. Minusbaliotasunen bat duten hautagaiek, minusbaliotasuna egiaztatzen duen organo eskudunaren ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko dute eta beteko dituzten lanpostuetan aritzeko gaitasuna badutela adierazten duen agiria.
3. Adierazpena, eginkizun publikoak betetzeko gaitasunik gabetuta ez dagoela eta inongo herri-administrazioetako zerbitzutik diziplina-espeditente bidez berezita ez dagoela jasotzen duena.
4. Adierazpena, Herri Administrazioetan jarduten duten langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bateraezintasunen inolako kausatan sartuta ez dagoela jasotzen duena.
5. Plaza bakoitzera sartzeko eskatzen dena, hau da, titulua edo titulua eskuratzeko eskubideen ordainagiria, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/89 Legearen 43. artikulua arabera; tituluok deialdiaren oinarri espezifikoetan zehaztutakoak dira.
6. Deialdi bakoitzerako baldintza espezifikoak agirien bidez benetakotzea.



## 2. *Epea ez betetzea, agiriak ez aurkeztea edo baldintzak ez betetzea*

Adierazitako epearen barruan, ezinbesteko kasuetan izan ezik, deialdian parte hartzeko eskatzen diren betebeharrak eta baldintzak betetzen direla ziurtatzen duten agiriak aurkezten ez dituzten oposiziogileek, edo agiriak aztertuta edo medikuen azterketaren ondorioz ikusten bada baldintzetakoren bat ez dutela betetzen, deialditik kanpo geratuko dira eta beraz, ezin izango dira izendatu. Hori gertatuz gero, baliorik gabe geratuko dira ordura arte egindako jarduketa guztiak eta, gainera, litekeena da erantzukizunik izatea beren gain hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidean datu faltsuak agertzeagatik. Horrelakoetan, Udalburuak hurrengo hautagaien aldeko izendapen proposamena egingo du, betiere hautaketa-prozesua gainditutakozen zerrendako puntuazio-hurrenkeraren arabera, eta bete gabe geratu diren plaza beste hautagai hautatuko ditu.

Hautaketa-prozesu honetako gainditutakozen zerrendak baliagarriak izango dira bitarteko funtzionarioak izendatzeko, betiere indarreko arautegietan aurreikusten diren kasuetan, baita beste era batzuetako kontratazioak egiteko ere, egin daitezkeenean.

### **Hamahirugarrena. — Izendapena**

Agiriak aurkezteko epea amaituta, hautagaiak karrerako funtzionario edo praktiketako funtzionario izendatuko dituzte; praktiketako funtzionarioen kasuan, izendapenerako adierazitako egunaren eta lanpostua jabetzan hartuko den egunaren arteko iraupena izango du, karrerako funtzionario izateko praktikaldia edo prestakuntza-ikastaroa gaindituta, hori egin beharra badago.

Izendapenak izangaiei jakinaraziko zaizkie eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Udaltzeko iragarki-taulan eta Udalaren web orrian argitaratuko dira.

### **Hamalagarrena. — Lanpostuaz jabetzea eta destinoak esleitzea**

Lanpostuez jabetzea. Udaleko organo eskudunak proposamena onartu ondoren, behin betiko izendatutako pertsonak lanpostuaz jabetu eta apirilaren 5eko 707/79 Errege Dekretuan eskatzen den baldintza bete behar dute; horretarako, hamabost egun balioduneko epea dute, izendapena jakinarazi zaien egunetik aurrera.

Hala ere, praktiketako funtzionarioen jabetza-hartzea Udalak erabakitako egunean edo egunetan egingo da.

Ezarritako epearen barruan, justifikatzeko moduko arrazoirik ez badago, lanpostuaz jabetzen ez direnek, karguari uko egin diotela ulertuko da eta bere eskubide guztiak galduko dituzte. Horrelakoetan, Alkateak hurrengo hautagaien aldeko izendapen proposamena egingo du, betiere hautaketa-prozesua gainditutakozen zerrendako puntuazio-hurrenkeraren arabera, eta bete gabe geratu diren plaza beste hautagai hautatuko ditu.

### **Hamabosgarrena. — Azken arauak**

Deialdia, oinarriak eta hauen ondoriozko administrazio egintzak eta Epaimahaiaren jarduna aurkaratu ahalko dute interesdunek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikulua xedatutakoaren arabera.

**BOST OFIZIOETAKO OFIZIAL PLAZA BETETZEKO DEIALDIAREN  
OINARRI ESPEZIFIKOAK****Lehenengoa. — Deialdiaren xedea**

Deialdi honen xedea da Amorebieta-Etxanoko Udaleko funtzionarioen plantillan dauden bost ofizioetako ofizial plaza lehiaketa-oposizio libre bidez betetzea. Lanpostuak administrazio berezikoak dira, brigadako zerbitzu berezien azpieskala, C2 sailkapen taldea, 16. maila, nahitaezko 2. hizkuntza eskakizuna, eta ondoko banaketa:

— *Barne-sustapen txanda*: lau plaza.

— *Txanda askea*: plaza bat.

2020rako ezarritako birjarpen-tasa betetzen dela kontuan hartuta, barne-sustapeneko txandarako gordetako lanpostu bat hutsik geratzen bada lehiarik ez dagoelako, inork ez duelako lortu dagozkion probak gainditzeko eskatzen den gutxieneko puntuazioa edo ez dituelako betetzen eskatutako baldintzak, txanda irekiari gehituko zaio. Barne-sustapeneko txandarako gordetako hutsik dauden beste hiru lanpostuak ezin izango dira metatu.

Halaber, deitutako plazen kopurua gehitu ahal izango da, hautaketa-prozesuan, edozein arrazoigatik, lanposturen bat hutsik geratzen bada. Handitze hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da alkate-udalburuaren ebazpen baten bidez, eta bertan adieraziko dira plaza-kopurua, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data; nolahi ere, hamaikagarren oinarri orokorreko 1. zenbakian aurreikusitako gaituen zerrenda argitaratzeko izapidea baino lehen egin beharko da.

**Bigarrena. — Azterketa eskubideengatik ordaindu beharreko tasa**

A2 taldeari dagokion tasa 6,20 eurokoa da.

Barne-sustapen txanda bidez parte hartuko duten hautagaiek ez dute tasa ordaindu beharrik izango.

**Hirugarrena. — Hautagaiek bete beharrekoak.**

a) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan graduatua titulua izan edo lortzeko moduan izan, eskariak aurkezteko epea amaitzen denerako.

b) Hautaprotetan 2. HE edo baliokidea dutela egiaztatzea.

**Laugarrena. — II. HE egiaztatzeko proba**

Hautagaiek deialdi bakarra izango dute ariketa bakoitza egiteko, behar bezala justifikatutako halabeharrezko kausarik dagoenean izan ezik edo epaimahaiak askatasunez hala erabakitzen duenean izan ezik.

— II. HE egiaztatzeko proba: Hautagai guztientzat nahitaezkoa eta baztertzaila. 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatzean datza. Kalifikazioa gai edo ez gai izango da.

Hautagaiek 2. hizkuntza eskakizunari dagozkion ezagutzak dituztela egiaztatzeko probak egingo dira. Proba horien edukia eta forma IVAPEk zehaztuko du.

Ez da beharrezkoa izango 3. HEren proba egitea, aldez aurretik egiaztatu bada HE hori edo honen baliokidea.

II. hizkuntza eskakizuna egiaztatu ez duten hautagaiak, ez gai izango dira eta hautaketa prozesutik baztertuko dira.

**Bosgarrena. — Ariketak****1. Oposizio-fasea**

— Lehenengo ariketa: Hautagai guztientzat nahitaezkoa eta baztertzaila. Zati bi izango ditu:

Erantzun alternatiboak eta/edo I. eranskinetako gai-zerrenda orokorrarekin zerikusia duten erantzun laburreko galderak dituen galdetegi bati idatziz erantzun beharko zaio.



Epaimahaiak erabakiko du galdera kopurua, erantzun okerrak zigortzea ala ez, probaren iraupena eta abar.

Barne-sustapeneko txandako izangaiak jada eskatutako ezagutzak egiaztatu behar ez izateko, proba horretatik salbuetsita egongo dira jatorriko kidegoan sartzeko gainditu dutela egiaztatzen duten barne-sustapeneko txandako izangaiak, eta, ondorioz, deskontatu egingo zaie lehen zati hori egiteko gainontzekoei esleitutako denbora.

Ariketa hau gai edo ez gai izango da.

Erantzun alternatiboak eta/edo II. eranskinen gai-zerrenda espezifikoarekin zerikusia duten erantzun laburreko galderak dituen galdetegi bati idatziz erantzun beharko zaio. Epaimahaiak erabakiko du galdera kopurua, erantzun okerrak zigortzea ala ez, probaren iraupena eta abar.

Ariketa honek gehienez 10 puntu izango ditu, eta gutxienez ere 5 puntu eskuratu beharko dira gainditzeko.

— Bigarren ariketa: Hautagai guztientzat nahitaezkoa eta baztertzaila. Proba praktikoa bat edo batzuk egin beharko dira. Proba horiek idatziz egin ahal izango dira, edo, bestela, lanpostuaren funtzioei lotutako zeregin bat egin beharko da, II. eranskinen gai-zerrenda espezifikoarekin zerikusia duena. Epaimahaiak erabakiko du proba kopurua, probaren iraupena, ariketa gainditzeko proba bakoitza gainditu beharra eta abar.

Ariketa honek gehienez 20 puntu izango ditu, eta gutxienez ere 10 puntu eskuratu beharko dira gainditzeko.

— Hirugarren ariketa: Proba psikoteknikoak. Hautagai guztientzat nahitaezkoa eta baztertzaila. Bete beharreko lanpostuaren zehaztapen tekniko eta humanoetara hautagaiak egokitzen diren ebaluatzeko probak egingo dira.

Ariketa hau gai edo ez gai izango da.

## 2. *Lehiaketa fasea*

Merezimenduak kalifikatzeko, oposizioaren bigarren ariketako emaitzak argitaratu ondoren, hamar egun balioduneko epea emango da hautagaiek eskabide-orrian adierazitako merezimenduak egiaztatu ditzaten.

Aldez aurretik eskabide-orrian adierazitako merezimenduak eta goian adierazitako epearen amaierarako behar bezala egiaztatu direnak baino ez dira baloratuko.

Deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu arte bildutako merezimenduak bakarrik baloratuko dira.

Oposizio-fasea gainditzen duten hautagaiek lehiaketa-fasera joko dute eta horretan Epaimahaiak ondoko merituak baloratuko ditu, baldin eta eskabidean horiek alegatu badira, oinarri orokorretan ezarritakoari helduta, eta horiek behar bezala egiaztatzekeo jatorrizko agiriak edo kopia konpultsatuak aurkeztuta.

### 2.1. ESPERIENTZIA, GEHIENEZ ERE 5 PUNTU, ONDOKO BAREMOAREN ARABERA:

— Administrazio publikoan lan egiteagatik ofizioetako ofizial moduan, C2 taldea, Administrazio Bereziko Eskala, zerbitzu berezien azpieskala: lan egindako urte oso bakoitzeko 1 puntu.

Zerbitzuen urte osora iristen ez den sei hilabeteko frakzioa edo handiagoa 0,50 punturekin baloratuko da.

— Administrazio publikoan lan egiteagatik peoi postuan edo antzekoan, lanbide elkartea, Administrazio Bereziko Eskala, zerbitzu berezien azpieskala: lan egindako urte oso bakoitzeko 0,50 puntu.

Zerbitzuen urte osora iristen ez den sei hilabeteko frakzioa edo handiagoa 0,25 punturekin baloratuko da.

— Enpresa pribatuan ofizioetako ofizial lanpostuan: lan egindako urte oso bakoitzeko 1 puntu.



Zerbitzuen urte osora iristen ez den sei hilabeteko frakzioa edo handiagoa 0,50 punturekin baloratuko da.

- Enpresa pribatuan, peoi lanpostuetan: lan egindako urte oso bakoitzeko 0,50 puntu.

Zerbitzuen urte osora iristen ez den sei hilabeteko frakzioa edo handiagoa 0,25 punturekin baloratuko da.

Administrazio publikoan egindako lana, zerbitzuak emandako Administrazioaren ziurtagiri bidez egiaztatu beharko da, kontratuaren iraupena eta lanpostua adierazi beharko direlarik.

Arlo pribatuan egindako lana egiaztatzeko (inoren kontura edo autonomo bezala) lan egindako enpresaren egiaztagiria aurkeztu beharko da eta, honekin batera, Gizarte Segurantzak egindako lan-bizitzaren agiria.

## 2.2. TITULUAK ETA PRESTAKUNTZA, GEHIENEZ ERE 2 PUNTU:

- Batxilergoko titulua edo teknikaria: 1 puntu
- Atal honetan baloratuko da HAEEK, HAINak (Herri Administrazioen Institutu Nazionalak) eta bestelako Prestakuntza Zentro Ofizialek eskainitako prestakuntza edo hobekuntza ikastaroak eginda izatea. Halaber, etengabeko Prestakuntza Planak eskaintzen dituzten lankidetzako Erakundeek emandakok baloratuko dira, baldin eta bete nahi den plazaren zereginekin zerikusia badute. Ikastaroetan emandako orduak kontuan izanda ondoko baremoak erabiliko dira:
  - 10 eta 40 ordu bitarteko iraupena duen bakoitzeko: 0,15 puntu.
  - 41 eta 80 ordu bitarteko iraupena duen bakoitzeko: 0,30 puntu.
  - 80 ordu baino gehiagoko iraupena duen bakoitzeko: 0,45 puntu.

## 2.3. GIDATZEKO BAIMENAK, 3 PUNTURA ARTE:

- B motako gida-baimena edo baliokidea izateagatik: Puntu 1.
- C motako gida-baimena edo baliokidea izateagatik: Puntu 1.
- Salgaiak garraiatzeko ibilgailuen gidarientzako CAP-Lanbide Gaitasunaren Ziurtagiria edo baliokidea edukitzeagatik: Puntu 1.

## 2.4. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAKO IKASTAROAK, GEHIENEZ 2 PUNTU:

- Elikagaiak manipulatzeko ikastaroa (gutxienez 2 ordu): 0,25 puntu.
- Lanpostuan dauden arriskuei buruzko prestakuntza ikastaroa: obretako brigadako langilea (gutxienez 2 ordu): 0,25 puntu.
- Plataforma jasotzailea erabiltzeko operadore espezializatuaren ikastaroa (gutxienez 2 ordu): 0,25 puntu.
- Lurren mugimenduan espezializatutako operadorearen ikastaroa (gutxienez 2 ordu): 0,25 puntu.
- Amiantoaren eraginpean egoteagatik sortzen diren arriskuei buruzko ikastaroa (gutxienez 2 ordu): 0,25 puntu.
- 10 eta 40 ordu bitarteko iraupena duen bakoitzeko: 0,25 puntu.
- 41 eta 80 ordu bitarteko iraupena duen bakoitzeko: 0,50 puntu.
- Espazio konfinatuetan lan egiteko ikastaro teoriko-praktikoa (gutxienez 7 ordu): 0,50 puntu.
- Alturretan lan egiteko ikastaro teoriko-praktikoa (gutxienez 7 ordu): 0,50 puntu.
- 80 ordu baino gehiagoko iraupena duen bakoitzeko: 1 puntu.
- Eraikuntza sektoreko laneko arriskuen prebentzioko oinarriko ikastaroa (50 ordu gutxienez): 1 puntu.

Egindako ikastaroak dagokion titulua aurkeztuz edo titulua lorteko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria aurkeztuz egiaztatuko dira.



Ikastaroak egiaztatzeke dagokion erakunde ofizialak egindako egiaztagirak edota lortutako tituluak aurkeztu beharko dira. Prestakuntza osagarriari dagokionez merituen egiaztatzeke agirietan, bakoitzaren iraupena zehaztu beharko da.

**Seigarrena. — Izendapena eta praktikaldia**

Alkateak praktiketako funtzionario izendatuko ditu Epaimahai Kalifikatzaileak proposatutako hautagaiak, oinarri orokorretan adierazten diren agiriak aurkeztu ondoren.

Destinoak aukeratzeko, hautaketa-prozesuko behin betiko sailkapenean hautatutako pertsonak zein hurrenkeratan dauden hartuko da kontuan. Edozelan ere, lehenetsuna izango dute barne-sustapeneko txanda bidez parte hartu eta hautatuak izan direnek.

Praktikaldia gehienez 6 hilabetekoa izango da.

Barne-sustapeneko txandako proposatutako hautagaiek ez dute praktikaldirik egin beharko.

Praktikaldia amaitzen denean, nagusiak edo zuzeneko nagusiek, azken txostena egingo dute praktikaldiari buruz, egoki diren alegazio edo oharrak egin ahal izateko.

Hautatuak ez balu aipatu praktikaldia gaindituko, izendatua izateko eskubide guztiak galduko lituzke, Tokiko Gobernu Batzordeak arrazoitutako erabaki bidez.

**Zazpigarrena. — Aldi baterako lan poltsa**

Oposizio aldia gainditu dutenen zerrenda erabiliko da ofizioetako ofizial lanposturako izan daitezkeen beharizanetarako. Zerrenda hau 10 urtean indarrean egongo da, hautaketa prozesua amaitzen denetik zenbatzen hasita.

Halaber, oposizio aldiko ariketak gainditu dituzten hautagaiekin lan poltsa bat osatuko da, eta hau erabiliko da lehenengoa izan ezean. Bigarren lan-poltsa honetako hurrenkera ezartzeko, gainditutako ariketen puntuazioak eta aitortutako merezimenduak batuko dira.

Berdinketarik egonez gero zerrenda horien hurrenkeran, berdinketa hausteko irizpideak hauek izango dira: lehenengo, ariketa praktikoan puntuaziorik altuena duena; berdinketak jarraitzen badu, puntuaziorik altuena bigarren ariketan; berdinketak jarraituko balu, hirugarren lekuan, lehenengo ariketan puntuaziorik altuena duena; berdinketak jarraitzen badu, laugarren lekuan, 364/95 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikorako Estatu Idazkaritzak egindako zozketan erabakiko da hurrenkera.



## I. ERANSKINA

### GAI-ZERRENDA OROKORRA

1. gaia. 1978ko abenduaren 27ko Espainiako Konstituzioa. Oinarrizko printzipioak. Oinarrizko eskubide eta askatasunak.
2. gaia. Estatuaren lurralde antolamendua. Printzipio orokorrak.
3. gaia. Euskadiko Autonomia Estatutua, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa. Kontzeptua eta izaera. Euskadiren eskuduntzak.
4. gaia. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea. Udalerria: lurraldea eta biztanleria.
5. gaia. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea. Udalaren antolaketako oinarrizko organoak: alkatea, alkateordeak, Osoko Bilkura eta Tokiko Gobernu Batzordea.
6. gaia. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea. Emakume eta gizonen berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa. Printzipio orokorrak. 18-22 artikulua.



## II. ERANSKINA

**GAI ESPEZIFIKOAK**

7. gaia. Saneamendu sareak eta hustubideak. Instalazioa, dimentsioa eta materialak.
  8. gaia. Iturgintzako oinarritzko kontzeptuak. Emariak eta kontsumoak, abiadura eta sekzioa. Presioa, presioa-altuera erlazioa, karga-galerak, ariete-kolpea. Neurketa-unitateak.
  9. gaia. Hornidura-instalazioen elementuak. Hodiak eta osagarriak, andelak, ponpaketak, balbulak eta kontrol-gailuak, txorrota sanitarioak, kontagailuak, ur-tangak, etab. Mantentze-lanak, kontrola eta konponketak.
  10. gaia. Ur hornidura jagotea. UCV eta legionellaren prebentzioa.
  11. gaia. Hiriko altzariak eta herri-lanetan ohikoak diren materialak. Motak eta ohiko konponketak.
  12. gaia. Obrako makineria eta tresnak.
  13. gaia. Bide publikoan elementu mugikorak muntatzea. Aldamioak, tribunak, ager-tokiak, karteldegia, etab.
  14. gaia. Igeltserotza lanak. Trenkadak, luzituak, zarpiatuak, alikatatuak, pladurra.
  15. gaia. Paramentuak, metalak edo zura prestatzea eta pintatzea edo bernizatzea. Materialak. Pintura motak. Tresnak. Faseak.
  16. gaia. Obrako ibilgailuak, tresnak eta makineria mantentzeko oinarritzko mekanika.
  17. gaia. Obretako brigadaren ohiko zereginetan laneko arriskuen prebentzioa. Produktu toxikoak edo arriskutsuak. Babes pertsonala eta kolektiboa.
  18. gaia. Planoak irakurri eta interpretatzea. Eskala. Hainbat elementuren adierazpen grafikoak.
  19. gaia. Elektrizitateko oinarritzko kontzpetuak. Elementu elektrikoak dauden lanetan kontuan hartu beharreko alderdiak eta segurtasun-neurriak.
  20. gaia. Lorezaintza, sasiak kendu eta moztea. Oinarritzko kontzeptuak eta tresnak erabiltzea.
- Amorebieta-Etxanon, 2021eko irailaren 20an.—Alkatea, Andoni Agirrebeitia Abendibar